




ERMUKO UDALA

Toki Garapeneko Alorra



Jarduera-txostena

2016. urtea

Aurkibidea

1	SARRERA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
2	ARLOAREN AURKEZPENA.	2
2.1	XEDEA.....	2
2.2	IKUSPEGIA.....	2
2.3	BALIOAK	2
3	ANTOLAMOLDEA.....	2
3.1	ANTOLAMOLDEA.....	2
3.2	NON GAUDE.....	2
3.3	ZERBITZU-ORGANIGRAMA.....	7
3.4	GAUZATUTAKO AURREKONTUA.....	8
4	TOKI GARAPENeko ALORRAREN JARDUKETAK 2016.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
4.1	PERTSONENTZAKO INFORMAZIOA ETA ARRETA	9
4.2	KONPETENTZIA PERTSONALAK ETA PROFESIONALAK HOBETZEA. PRESTAKUNTZA	10
4.2.1	<i>Oinarrizko Lanbide Heziketa (OLH).....</i>	<i>10</i>
4.2.2	<i>Lanerako prestakuntza.....</i>	<i>11</i>
4.3	KONPETENTZIA PERTSONAL ETA PROFESIONALAK HOBETZEA. ENPLEGURAKO ORIENTAZIOA ETA PRESTAKUNTZA 13	
4.3.1	<i>Enplegu-zentroa.....</i>	<i>13</i>
4.3.2	<i>Orientazio soziolaborala</i>	<i>¡Error! Marcador no definido.</i>
4.4	KONPETENTZIA PERTSONAL ETA PROFESIONALAK HOBETZEA. ENPLEGUA.....	14
4.5	LANERATZEAREN EMAITZAK.....	17
4.6	SUSTAPEN EKONOMIKOA.....	18
4.6.1	<i>Industria-arloarentzako aholkularitza eta laguntza</i>	<i>18</i>
4.6.2	<i>Gaztetxoen artean bokazio teknikoak eta teknologikoak bultzatzea.....</i>	<i>19</i>
4.6.3	<i>Autoenplegurako motibazioa / enpresa-ekimen berriak abiarazteko laguntza</i>	<i>20</i>
4.6.4	<i>Bitartekotza.....</i>	<i>20</i>
4.6.5	<i>Toki garapenari buruzko jardunaldiak</i>	<i>21</i>
4.6.6	<i>Merkataritza-arloarentzako aholkularitza eta laguntza</i>	<i>23</i>
4.6.7	<i>IZARRA FUNDAZIOA</i>	<i>24</i>
4.6.8	<i>PROMOSA</i>	<i>32</i>
4.7	ZEHARKAKO PROIEKTUAK.....	33
4.7.1	<i>Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna</i>	<i>33</i>
4.7.2	<i>Kalitatea.....</i>	<i>33</i>

1 SARRERA

Toki Garapeneko Alorrak 2015eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra egindako jardueraren balantze laburra jasotzen du agiri honek. Orobat, Arloaren izateko arrazoien eta egituraren azalpen laburra ere biltzen du.

2 ARLOAREN AURKEZPENA

2.1 Xedea

Ekonomia sustatzeko proiektuak eta enplegu-politika aktiboak jorratzen ditugu, geure inguruneko pertsonen eta enpresen beharrezanetara egokituta eta Toki/Udal estrategian oinarrituta.

2.2 Ikuspegia

Berdintasunean oinarrituko den gizarte-eredu berria lortzea, enplegu osoa eta bizi-kalitate handia helburu. Horretarako, taldean aritzen gara, sormena eta berrikuntza erabiliz eta eraginkortasuna bide.

2.3 Balioak

- Etika
- Gogobetetasuna
- Konpromisoa
- Enpatia
- Sormena / Aldaketarako prestutasuna / Berrikuntza.

3 ANTOLAMOLDEA

3.1 Antolamoldea

Toki Garapeneko Udal Alorrak zerbitzu ugari eskaintzen dizkie herritarrei, guztiak ere enpleguari eta enplegua sustatzeko baldintzei lotuta. Giza talde espezializatua eta diziplina anitzekoa dugu zerbitzuok eskaintzeko.

Hona hemen gure zerbitzu orokorrak:

- Jendeari informazioa eta arreta ematea.
- Ekonomiaren sustapena indartzea, eta, horretarako, ekonomiaren dibertsifikazioa, enpresen lehiakortasuna eta ekintzaitza garatzeko proiektuak bultzatzea.
- Gaitasun profesionalak eta pertsonalak hobetzea, eta, horretarako, prestakuntza, orientazio soziolaborala eta enplegu-planak bultzatzea.
- Enplegurako bitartekotza-lana, Laneratzeko Agentziaren bidez.



[Ikusi gure webgunea](#)

3.2 Non gaude

TORRETA ETXEA: Informazioa,
orientazio soziolaborala
eta enplegu-zentroa:
Bizkaiko etorbidea, 15. 48260 Ermua.
Telefonoa: 943179151
Faxa: 943179388
Helbide elektronikoa: dl@udalermua.net



IZARRA CENTRE: Ekonomiaren sustapena
Izarra fundazioa, PROMOSA,
Enpresa-zentroa eta teknologia-mintegia
Zeharkalea, 34 eta 36. 48260 Ermua
Telefonoa: 943179018
Faxa: 943176148
Helbide elektronikoa: jlorenzo@udalermua.net



**IZARRA CENTRE, PRESTAKUNTZAKO
ETA ENPRESA EKIMENETARAKO
ZENTROA** Prestakuntza-zentroa eta
enpresa-mintegia
Makina-eskola. Orientazio soziolaborala eta
enplegu-agentzia.
Zeharkalea, 34. 48260 Ermua
Telefonoa: 943179018 Faxa: 943 176909
Helbide elektronikoa:
centroizarra@udalermua.net



**HASIERAKO LANBIDE HEZIKETAKO
ZENTROA**
Osma auzoa z.g.
48269 Ermua
Telefonoa: 943176422
Faxa: 943176909
Helbide elektronikoa:
cipmallabia@udalermua.net

**ARTAMENDI, MAKINEKIN
PRAKTIKATZEKO KONPLEXUA**
Artamendi auzoa, z.g.
48260 Ermua
Telefonoa: 943179018
Faxa: 943176148



3.3 Zerbitzu-organigrama

Ermuko Udala Toki-garapenerako zerbitzuak


**Lehiakortasuna
hobetzea**
Orientazioa
Prestakuntza
Lan-esperientzia

**Enplegurako
bitartekotza**
Eskaintzak, eskariak eta beste
izapide batzuk kudeatzea

Ekonomiaren sustapena
Ekonomia-sarea indartzea
Industria-jarduera dibertsifikatzea
Enpresa-sena sustatzea
Sorkuntza eta berrikuntza bultzatzea
Enplegu-eskaintzak erakarri eta
kudeatzea
Izarra Fundazioa
PROMOSA, industria-lurzorua
Azterketak

Erabiltzaileak: pertsonak eta enpresak

3.4 Gauzatutako aurrekontua.



Ermuko Udala	1.519.093,29
Eusko Jaurlaritza	1.539.606,48
Bizkaiko Foru Aldundia	38.384,62
Guztira	3.097.084,39

4 TOKI GARAPENeko ALORRAREN JARDUKETAK 2016

4.1 *Pertsonentzako informazioa eta arreta*

Jendearentzako Informazio eta Arreta Zerbitzua da guregana jotzen duten lagun guztientzako lehenengo harreman-puntua.

Bertan ematen dira, besteak beste, orientazio-zerbitzurako hitzorduak, enplegu-zerbitzuekiko tramiteen inguruko informazioa eta abar. Era berean, herritarren eta alorraren gainerako zerbitzuen arteko bitartekotza-lana ere egiten du. Adibidez, hantxe dago telefonogunea, bertatik bideratzen da jendea dagokion zerbitzura, zerbitzuen inguruko informazio orokorra ematen da...

2016an halako **5.849** arreta eman dira, horietatik 3.206 emakumeei eta 2.643 gizonei.



4.2 Konpetentzia pertsonalak eta profesionalak hobetzea. Prestakuntza

Prestakuntzako proiektuak ez ezik, prestakuntzako eta enpleguko proiektu mistoak ere jorratzen ditugu, konpetentziak pertsonalak eta profesionalak hobetzeko.

4.2.1 Oinarrizko Lanbide Heziketa (OLH)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarrizko konpetentzietara heltzen ez diren (eta, ondorioz, DBHko titulurik ez duten) 15 eta 17 urte bitarteko ikasleei hezkuntza arautuan ikasten jarraitzeko aukera eskaintzen die oinarrizko lanbide-heziketak, lanbide-heziketako sistema arautuaren barruan; izan ere, titulu hori eskuratuz gero, erdi-mailako prestakuntza ziklotara zuzenean sartzeko aukera izango dute gazteek. Honako espezialitate hauek eskaintzen dira: Ile-apainketako eta estatikako OLHa, Elementu

metalikoen fabrikazioko OLHa, Ibilgailuen elektromekanikako mantentze-lan osagarrietako OLHa.

Ikastetxeak gizarteratze-langilea ere badu, hezkuntza-komunitateko kideen arteko harremanak findu eta errazteko; horretaz gain, gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko proiektuaz ere arduratzen da, ikastetxearen curriculum-proiektuaren barruan. Hain zuzen, funtsezko tresnatzat erabiltzen du orientazioa, ikasleen alderdi soziopertsonalak eta soziolaboralak lantze aldera. Gainera, familia barruko giroa eta harremanak hobetzeko alderdiak ere lantzen ditu familiek. Hein batean, eragile askoren arteko koordinazioari eta lankidetzari esker garatzen da proiektua; hor daude, besteak beste, udal-arloak; gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko taldea; bai eta

OLH 2015/2016 ETA 2016/2017 (2016. urtea)									
ESPEZIALITATEAK	Gizonak	Emakumeak	Ikasleak guztira	Teoria-orduak eskolan	Praktika-orduak lantokietan	Orduak guztira	Ermukoak edo Mallabikoak	Ermutik kanpokoak	Hasiera-eguna
Ibilgailuen mantentze-lana. 1. eta 2. mailak. 2015/2016	27	0	27	1044	260	1304	6	21	2014/09/10
Elementu metalikoen fabrikazioa. 1. eta 2. mailak. 2015/2016	27	1	28	1044	260	1304	11	17	2014/09/10
Ile-apainketa eta estetika. 1. eta 2. mailak. 2015/2016	2	23	25	1044	260	1304	9	16	2014/09/10
<u>Oinarrizko lanbide-heziketa 2015/2016</u>	56	24	80	3132	780	3912	26	54	2014/09/10
Ibilgailuen mantentze-lana. 1. eta 2. mailak. 2016/2017	29	0	29	696	0	696	3	26	2016/09/07
Elementu metalikoen fabrikazioa 1. eta 2. mailak 2016/2017	26	1	27	696	0	696	9	18	2016/09/07
Ile-apainketa eta estetika. 1. eta 2. mailak. 2016/2017	1	25	26	696	0	696	11	15	2016/09/07
<u>Oinarrizko lanbide-heziketa 2016/2017</u>	56	26	82	2088	0	2088	23	59	2016/09/07

Udalaren baliabideak ere.

Lehentasunezko lau talde handiren arteko lankidetzak eta koordinazioa eskatzen du gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko proiektuak: ikasleena, familiaena, irakasleena eta udalerrarena. Guztiek ere helburu bera partekatzen dute: helduaro aktiboa, positiboa, erabakigarria eta inplikatu izan dezaten gaitzea gazteak.

Ekintzak:

- Hiru topagune familien artean.
- Konpetentzia eta jarrera pertsonalak, sozialak eta laboralak garatzeko 100 jarduera baino gehiago.
- Udal-baliabideekiko koordinazioa eta haien partaidetza: Gizarte- eta hezkuntza-zerbitzua; Orientazio soziolaborala, Udalaren orientazio-zerbitzuekin batera; Emakumeentzako defentsa pertsonaleko prestakuntza; Alkoholaren kontsumo arduratsua, Drogamenpekotasunaren Udal Arloarekin eta Irudi Biziak programarekin lankidetzan; Elikadurako nahasmenduak, ACABE elkartearekin lankidetzan; Sexu-aniztasuna, ALDARTE elkartearekin batera; eta abar.

Hona hemen 2015-2016ko ikastaroko emaitzetako batzuk:

- 83 ikasle matrikulatu dira.
- Ikasleen % 29 Ermuan bizi da.
- Ikasleen % 72k OLHa gainditu du.
- OLHa gainditzen duten ikasleen % 96k ikasten jarraitu du.
- Ikasleen % 7k lana aurkitu du.
- Hasierako taldeko ikasleen % 8k baja eman du programan.

4.2.2 Lanerako prestakuntza

Langile guztiei (jardunekoei nahiz langabeei) lan-merkatuaren beharrezan lotutako prestakuntza eskaintzen diegu, kontuan hartuta, alde batetik, enpresen produktibitate- eta lehiakortasun-eskakizunak eta, beste aldetik, langileek euren ibilbide profesionalean eta pertsonalean aurrera egiteko duten asmoa. Helburua: lanbideetarako eta laneratzeko gaitzea partaideak.

Prestakuntza-ekintzak. 2016an jorratutako zatia											
PRESTAKUNTZA EKINTZA	Gizonak	Emak.	Ikasleak guztira	Teoria-orduak ikasgelan	Praktika-orduak lantokian	Orduak guztira	Ermukoak edo Mallabikoak	Ermutik kanpokoak	Hasiera-data	Amaiera-data	
LANBIDEREN PRESTAKUNTZA, 2016											
16480918 Espazio zabalak garbitzea	11	1	12	130	80	210	11	8	2016-10-03	2016-11-11	
16480921 Lorategiak eta berdeguneak ezarri eta mantentzea	6	9	15	390	80	470	3	2	2016-10-02	2017-02-17	
Lanerako prestakuntza guztira	17	10	27	520	160	680	14	10			

Hona Prestakuntza Zerbitzuaren ekintza-lerrorik garrantzitsuenak:

Enplegurako lanbide-heziketari lotutako ekintzak.

Enplegurako lanbide-heziketako ikastaroak, kalifikatzaileak, Eusko Jaurlaritzaren kalifikazio-moduluen katalogoan edo lanbide-egiaztagirietan oinarrituta. Lantokietako prestakuntzarekin edo lan-praktikekin batera egiten dira ikastaroak, beraietako edukia osatzeko eta laneko eskarmentua barneratzeko.

▪ **Makina-eskola**

Ermuko Udalak «*Obra publikoko, altxatzeko eta garraiatzeko makineriaren mantenu eta operazio eskola*» sortu du, eta bertan txertatu lurra mugiarazteko, altxatzeko eta garraiatzeko makinekin aritzeko eta mantentze-lana egiteko jarduketa guztiak.

Helburuak:

Makina-eskolaren helburu nagusia: ekonomiaren dibertsifikazioa eta toki-garapena bultzatzeko arlokako jarduketak egitea. Ildo horretan, operazioetan eta mantentze-lanetan espezializatu gara. Gainera, lanerako prestakuntza eta laneko arriskuen prebentzioko prestakuntza ematen da, hala eraikuntzaren arloan nola erauzte-arlorako meatzaritzako segurtasunean.

Makinekin jarduteko ikasmaterialak, argitalpenak, eta simulazioko eta errealitate birtualeko paketeak ere lantzen ditugu, guztiak ere prestakuntza-programazioan txertatzeko.

Helburu horiek lortzeko, Obra publikoko, altxatzeko eta garraiatzeko makineriaren mantenu eta operazio eskolak jarduera hauek egiten ditu:

▪ **Prestakuntza:**

1. Lanerako prestakuntza eta lantokiko prestakuntza.
2. Enplegua/prestakuntza.
3. Irakasleen prestakuntza.
4. Laneko arriskuen prebentzioa.

▪ **Merkatua:**

1. Merkatu-prospekzioa.
2. Sektorekako azterketak.
3. Laneko bitartekotza.
4. Enpresak sortzeko laguntza.

▪ **Azpiegiturak:**

1. Azpiegituren egokitzapena eta aprobetxamendua.
2. Makinen egokitzapena, berreraikuntza eta mantentze-lana.

▪ **Lankidetzak:**

1. Ikastetxeekin, enpresekin eta fundazioekin, prestakuntzarako metodologia didaktikoa sortzeko.

▪ **Ikerketa eta garapena:**

1. Simulazio-testa.
2. Laneko arriskuak prebenitzeko

ikasmaterialak.

3. Simulagailuak eta metodologia didaktikora aplikatutako errealitate birtuala.

4.3 Konpetentzia pertsonal eta profesionalak hobetzea. Enplegurako orientazioa eta prestakuntza

4.3.1 Enplegu-zentroa.

Zerbitzu horrek enplegua bilatzen laguntzen die gaur egun langabezian daudenei nahiz egungo lanpostua hobetu nahi dutenei. 2016an, **2.584 bider** erabili dute zerbitzua, guztira 511 lagunek. Horietatik 366 gizonak ziren eta 315 emakumeak.

4.3.2 Orientazio Soziolaborala.

TALDEKAKOAK. ENPLEGU-ZENTROA 2016AN	URTEAN GUZTIRA
TALDEKAKO JARDUKETEN KOPURUA	19
TALDEKAKO EKINTZEN IRAUPEN ORDUAK GUZTIRA	57
GIZON PARTAIDEAK	41
EMAKUME PARTAIDEAK	42
PARTAIDEAK GUZTIRA	83

2011. urtean enplegu-zentroa ireki genuen Ermuan. Harrezkero, enplegu-zentroak etengabe jardun du, nahiz eta aldi batzuetan Lanbideren laguntza barik geratu. Espazio fisiko egonkorra da eta bertan, langabeek beren kabuz aurki ditzakete enplegua bilatzeko informazioa eta baliabideak. Gainera, orientatzaile bat ere badute eskura, laneratzeko ibilbidean eta ibilbide horretarako tresnen erabileran laguntzeko.

Enplegu- eta prestakuntza-orientazioari esker, esku hartzeko estrategia pertsonalizatuak zehazteko aukera dago. Honako fase hauek ditu: orientazioa eta informazioa, lana lortzeko edo hobetzeko ibilbide pertsonalizatuaren diseinua, ibilbide hori abian ipintzeko prestakuntza- edo enplegu-baliabideetara bideratzea pertsona, eta esku-hartzearen fase guztietarako laguntza, eta ondorengo ebaluazioa eta jarraipena.

2016AN ORIENTAZIOA JASO DUTEN PERTSONEN KOPURUA	
Arreta jaso duten gizonen kopurua	180
Arreta jaso duten emakumeen kopurua	180
Arreta jaso duten pertsonen kopurua	360

ORIENTAZIO SOZIOLABORALERAKO TALDEKAKO EKINTZAK. 2016

TAILERRAK	PARTAIDEAK			
	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	ORDUAK
ELKARRIZKETA PRESTATZEA	10	6	16	12
IKTak ETA LANA BILATZEA	11	4	15	12
AUTOENPLEGURAKO ORIENTAZIOA	5	5	10	8
GUZTIRA	26	15	41	32

Inguruko zerbitzu soziokomunitarioen sarearekin lankidetzan jorratzen da jarduna.

Orientazioak izaera soziorabial argia du; hau da,

Gainera, prestakuntza-premia kolektiboak antzeman eta horiek betetzeko ikastaroak antolatzen ditugu.

BANAKAKO ORIENTAZIO-EKINTZAK. 2016

	JARDUKETA-KOPURUA	JARDUKETA-KOPURUA	ORDU-KOPURUA	ORDU-KOPURUA	JARDUKETA-KOPURUA	ORDU-KOPURUA
	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GUZTIRA	GUZTIRA
ENPLEGAGARRITASUNA BALORATZEA	45	40	30	27	85	57
ERAIKUNTZAKO LIP/EAP	35	30	22	18	65	40
BANAKAKO ORIENTAZIOA	122	109	60	56	231	116
HASIERAKO BANAKAKO TUTORETZA	36	47	28,5	36,5	83	65
JARRAIPENERAKO BANAKAKO TUTORETZA	37	41	33	38	78	71
CURRICULUMA + AURKEZPEN ESKUTITZA	47	38	24,5	21	85	45,5
IKTak ETA ENPLEGUA BILATZEA	33	31	32	14,5	64	46,5
INFORMAZIO PROFESIONALA	31	44	16	23	75	39
ESKAERA EGUNERATZEA	176	159	86,5	79,5	335	166
AUTOENPLEGURAKO BANAKAKO ORIENTAZIOA	1	2	0,50	1	3	1,5
GUZTIRA	563	541	333	314,5	1.104	647,5

pertsonekin esku hartzen denean dimentsio antzeko ikuspegia erabiltzen da, laneratzeko prozesuan garrantzia duten bizitza-esparru guztietan.

Batzuetan Lanbideren edo Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailaren diru-laguntzak jaso ditugu horretarako, baina beste batzuetan Udalaren beraren baliabideak baino ez ditugu izan.

Nabarmentzekoa da zuzenean edo zeharka enpleguarekin lotutako prestakuntzarako orientazioa. Izan ere, pertsonalki nahiz profesionalki kalifikatzeko, birkalifikatzeko nahiz birziklatzeko prestakuntza-prozesuak eskaintzen dizkiegu herritarrei. Era berean, ezagutzaren gizarteak eskaintzen dituen aukerak eskaini nahi dizkiegu erabiltzaileei, eskura dituzten prestakuntza-baliabide guztien berri emanez.

4.4 *Konpetentzia pertsonal eta profesionalak hobetzea. Enplegua*

Pertsonen enplegarritasuna hobetzen dugu, esperientzia profesionala lortzea dakarten enplegu-programen bidez, eta trebezia pertsonalak lantzeko zeharkako prestakuntza ere tarteko. Hala, Ermuan interes orokorreko eta sozialeko lanak egiteko kontratatzen ditugu langabeak. Horri esker, lan-merkatuan txertatu nahi duten arloetako lan-esperientzia eguneratzen dute eta, aldi berean, herritarren aintzatespena dakarren lan interesgarria burutzen dute herrian.

Esan ohi den bezala, enplegu-planeri esker, Ermua osoak irabazten du: enplegu-planeko partaideek egiten duten jardunak ingurunea eta ermuarentzako zerbitzu publikoak hobetzea dakar, eta, horrela, udalerriko bizi-kalitatea hobetzen laguntzen da.

Urteko enplegu-planean biltzen da gizarte-intereseko eta erabilgarritasun publikoko lanak eta zerbitzuak egiteko kontratatzen diren pertsonen inguruko udal-jarduera guztia. Aparteko lanak izaten dira, udal-brigadaren ohiko lana osatu — eta ez ordeztu— egiten dutenak. Era berean, 2016an enplegu-planaren zati bat gazte tituludunengana bideratu da; izan ere, udalerriko proiektu estrategikoak bultzatzen lagundu dute, hala nola herritarren partaidetzako ekarpenak,

2016an, enplegua sustatzeko hiru ekintza nabarmen daitezke:



– Lanbiderekin batera finantzatutako enplegu-programa, eskualdeko enplegu-planen baitan.

Lehen fasean 13 lagun kontratatu ziren, guztiak ere hiru hilabeteko kontratuarekin. Obretako udal-brigadaren aparteko lanen esparruan egin

ziren kontratazioak. 13 kontratazioetatik 7 gizonak izan ziren eta 6 emakumeak. LANBIDE programak garrantzi handia ematen dio kontratatzen diren pertsonen arteko sexu-orekari.

KONTRATATUTAKO PERTSONAK	Gizonak	Emakumeak	Guztira
2016ko plana, Lanbiderekin batera finantzatua	7	6	13
Gazte-enplegu plana	2	4	6
Tokiko plana, finantzaketa eksklusiboarekin	2	0	2

datu-baseen kudeaketa, liburutegia, adinekoentzako herri adeitsua eta herri hezigarria.

2016ko Enplegu Plana gauzatzean, arreta berezia egin zaie gazteei, iraupen luzeko langabeei eta, oro har, Ermuan enplegua lortzeko zailtasuna duten pertsona guztiei. Lanbiderentzako eskaintza generikoaren ostean, azken hautaketan bestelako alderdiak ere hartzen dira kontuan, hala nola familiaren diru-sarrerak, diru-sarrerarik bat ere ez edo gutxi izatea, gizartean baztertuta egoteko arriskua, eta familia-haustura.

Gazte tituludunen plana

Sei gazte kontratatu dira, euren titulazioei lotutako enpleguetan jarduteko: merkatu-plazarentzako erabilera berriei buruzko proiektuan (aurreko urtean jarri zen abian); zuntz optikoaren udal-sarerako erabilera berriei eta datu-baseen

kudeaketari buruzko proiektuan; bai eta bestelako proiektu batzuetan ere: partaidetzan, liburutegian, adinekoentzako herrian, herri hezigarrian... Sei gazte horietatik lau emakumeak izan ziren eta bi gizonak. Sei hilabeteko praktika-kontratua egin zaie, Udalak oso-osorik finantzatuta.

Udalak soilik finantzatutako tokiko enplegu-plana.

Aurreko planaren osagarria da, Udalak goitik behera finantzatzen duena. Obra eta zerbitzuetako udal-brigadaren aparteko lanen esparruan egin ziren kontratazioak. Bi pertsona kontratatu ziren hiru hilabeterako, biak ala biak gizonak. Atzera ere, eta kontratazioaren esparrua dela eta, kontratuen nolokotasunak gizonak kontratatzea ekarri zuen.

Enplegua eskuratzeko gabeziak hobetzeko, alderdi berezi eta zeharkakoei buruzko prestakuntza ere eskaini zen kontratu horien bidez. Prestakuntza hori bi alditan eman zen: hasiera batean lan-arriskuen prebentzioa azpimarratu zen, eta bigarrean, berriz, harremanetarako gizarte-trebeziei lotutako alderdiak. Laburbilduz, gazteek enplegua lortzeko behar dituzten konpetentziak hobetzeko gaitasun pertsonalak eta laboralak landu ziren.

Lan-kontratuaren iraunaldian, pertsona horien jarraipen eta laguntza pertsonalizatua egin da, eta kontratua amaitutakoan, berriz, enplegu-politika aktiboko beste ekintza batzuekin lotura egin da, pertsonak lan-merkatuan txertatzeko helburuarekin. Udal-zerbitzu eta -arloen arteko lankidetzaren emaitza izan da.

Ildo beretik, hainbat jarraipen-bilera egin ziren, lanaren garapenaren berri jaso eta laneratze-prozesua errazte aldera. Besteak beste, profil profesionalen alderdirik makalena antzeman eta indartu nahi izan ziren.



4.5 Laneratzearen emaitzak

2015. LANERATZEKO JARDUNAREN URTEKO EMAITZAK, %-TAN			
Parte hartu duten proiektua amaitu eta hurrengo sei hilabeteetan lana aurkitu duten partaideen %-a			
	Parte hartu zuten gizon-kopuruarekin alderatuz	Parte hartu zuten emakume-kopuruarekin alderatuz	Parte hartu zuten pertsonen kopuruarekin alderatuz
Enplegurako prestakuntza-proiektuak	%15,4	%75,0	%44,0
Hasierako lanbide-heziketako	%25,9	%7,7	%20,0
Enplegu-proiektuak	%36,4	%18,2	%31,8
Enplegu/prestakuntza proiektuak	%28,6	%100,0	%33,3
Lan-orientazioko proiektuak	%44,7	%42,2	%43,6
GUZTIRA	%28,7	%35,1%	%30,6
Partaidetzat zenbatzen dira pertsona hauek: prestakuntza- edo esperientzia-ekintza ebaluaziodunetan, ekintzaren azken ebaluazioan «gai» izendatu direnak eta gutxienez prestakuntza-orduen % 50ean parte hartu dutenak. Gainerako ekintzetan, gutxienez orduen % 50ean parte hartu dutenak.			

Egiten dituen orientazio-, enplegu- eta prestakuntza-programa guztien emaitzen jarraipen sistematikoa egiten du Arloak, partaideen laneratze-mailaren berri jasotzeko asmoz. Jarraipenerako hainbat bide erabiltzen badira ere, ziurtatu egin nahi da, gutxienez, jakitea partaide bakoitzak zer ibilbide duen proiektua burutu eta hurrengo sei hilabeteetan. Horiek horrela, ondoren aurkeztuko ditugun datuak 2015ean burutu ziren proiektuen osteko 6 hilabeteetakoak dira.

Arreta berezia eskatzen dute oinarrizko lanbide-heziketako programek, bi ikasturte oso hartzen dituztelako eta lanbide-heziketako ikasketei jarraipena ematea dutelako helburu. Horregatik, balantzea egitean, laneratzeaz gain kontuan hartu dugu, gainera, ikasketen jarraipena izatea (eskolaratzea). Betiere 2. mailako ikasleei buruzko datuak dira.								
2015. OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEN EMAITZAK, %-TAN								
Gizonen eskolaratzea	Emakumeen eskolaratzea	Eskolaratzea guztira	Gizonen laneratzea	Emakumeen laneratzea	Laneratzea guztira	Gizonen gizarteratzea (eskolaratzea edo laneratzea)	Emakumeen gizarteratzea (eskolaratzea edo laneratzea)	Gizarteratzea (eskolaratzea edo laneratzea) guztira
% 33,3	% 69,2	% 45,0	% 25,9	% 7,7	% 20,0	% 59,3	% 76,9	% 65,0

4.6 Sustapen ekonomikoa

Enpresa berrien sorrera bultzatzea da, besteak beste, Sustapen Ekonomikoaren Sailaren helburua. Horretarako, herriko enpresa-sarea jakintza trinkoko sektoreetara bideratzen du. Enpresen lehiakortasuna hobetzen ahalegintzen gara eta erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean jarduten dugu, negozio-aukera berriak identifikatzeko asmoz. Enpresa-ekimen berriak eratzeko espazioak eta laguntza eskaintzen ditugu, eta ekintzaitza-kultura sustatzeko jardun aktiboa egin.

4.6.1 Industria-arloarentzako aholkularitza eta laguntza

2016an, Ermuko Udala Bizkaia Lehiakorra proiektuan inplikaturik egon da, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bosgarren ardatz estrategikoaren baitan. Proiektuaren jatorrian, Foru Sailak Orkestraren laguntzarekin 2014an eta 2015ean egindako Bizkaiko Lehiakortasun Azterketa dago; helburua, berriz: eskualdeko eragileekin hurbilpen- eta lankidetzaren dinamikak abian jartzea, lehiakortasun-politika publikoek inpaktu handiagoa izan dezaten.

2016. eta 2017. urteetan, Ermuko Udalak 1. erronka landuko du eskualdean: enpresen hausnarketa estrategikoa bultzatzea, berrikuntza, nazioartekotzea eta lankidetzaren sustatzeko. Hain zuzen ere, erronka horretan dihardugu Durangoko

Enpresen Elkartarekin eta Gernikako Lanbide Ekimenak taldearekin batera. 2. erronkari dagokionez (Ekonomia zirkularreko negozio-eredu berriak barnizatzea), Azaro Fundazioarekin, Lea Artibai Garapen Agentziarekin eta Bermeoaldeko Behargintzarekin batera dihardugu. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Beaz erakundeak koordinatzen dituzte lehenengo nahiz bigarren erronkak, 2018ra arte iraungo dutenak. Asmoa: planteatzen diren erronkak eskualdeko eta lankidetzaren jorratzea.

Atal honen baitan eta 2016. urteari lotuta, ETE-ei zuzendutako jardunaldiak nabarmen ditzakegu. Batak errealitate areagotua eta industrian duen erabilera aztertu zuen, eta bigarrenak energia berriztagarrien sektoreko negozio-aukera berriak aztertu zituen, Aclimak Euskadiko energia berriztagarrien klusterraren eskutik.

Erronka-kopurua: 2

ETE-ei zuzendutako jardunaldi-kopurua: 2

ETE-etara egindako bisita-kopurua: 45



4.6.2 Gaztetxoen artean bokazio teknikoak eta teknologikoak bultzatzea

Gazteak industriara eta teknologiarara modu atseginean hurbilaraztea da helburua, epe laburrean gure lurraldean gizarte sortzaileagoa eta dinamikoagoa lortze aldera. Izan ere, artikulua robotizatuak sortuz irudimena eta sormena landu nahi izan dira.

Alabaina, lurralde osoan sorkuntzari eta ekintzaitzari lotutako kultura bizia sortzekotan, gazteekin batera landu behar dira, besteak beste, sorkuntza, talde-lana eta teknologiarako eta berrikuntzarako hurbilpena. Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen du prestakuntza eta, hartzaileei dagokienez, Lehen Hezkuntzako azken mailetan, Bigarren Hezkuntzan eta erdi- eta goi-mailako zikloetan dauden gazteak izaten dira.



2016. urtean burututako ekintzen artean nabarmen daitezke berrikuntzan oinarritutako teknologiko eta lankidetzaz sorkuntzako bi campusak, bi asteko iraupena izan dutenak.

Helburua: sorkuntza sustatzea, inguruko enpresek zehaztutako erronka zehatzen bidez. Izan ere, gazteek diseinua eta teknologia berriak uztartu behar izan dituzte erronketarako irtenbidea aurkitzeko.



Campusean bertan, bisitak egiten dira enpresetara, beraiekin batera lantzeko erronka hori. Gero, marketin- eta diseinu-lantegiak jarri dira abian, behar diren tresnak eskuratzeko. ETE-ek partaidetza- eta ekintzaitza-prozesua ezarri diete gazteei erronkatzat, beraien sormena lantzeko. Hala, ideia berriak jorratu behar izan dituzte inguruko industria-sarearen ezagutzatik abiatuta, eta ingurunean egindako produktuak eta teknologia berriak bilduz. Industria-robotikako tailerretan, zehazki, hiru robot diseinatu eta egin behar izan dituzte.

Adierazleak:

Teknologia-campusetako partaide-kopurua: 76
Sorkuntzarako eta ideiak sortzeko lantegietako partaide-kopurua: 239

Negozio-ideien lehiaketa-kopurua: 1

Profil ekintzaileagoa duten ikasleen ehunekoa: % 70

Bi robotika-lantegietako partaide-kopurua: 28

Sorkuntza-lantegiko partaide kopurua (Zubiondo Ermua Tools): 14

Parte hartu duten enpresen kopurua: 2

Parte hartu duten ikastetxeen kopurua: 5

4.6.3 Autoenplegurako motibazioa / enpresa-ekimen berriak abiarazteko laguntza

Helburua: ekintzaitzak ekonomiaren garapenean duen garrantziaz jabeaztea eta enpresa-ekimena bultzatzea, autoenplegurako banakako informazio-ekintzen bidez. Gure zerbitzutik igaro diren sustatzaile guztiek neurrirako aholkularitza jaso dute. Pertsona bakoitzaren premiaren arabera, honako gai hauen inguruko aholkuak jasoko dituzte: forma juridikoei buruzkoa, hiru urterako negozio-plana eta plan ekonomiko-finantzarioa prestatzeko laguntza, laguntzei eta diru-laguntzei buruzko informazioa, eta negozio-motaren arabera kokalekurik egokienaren inguruko aholkuak.



30 orduko bi prestakuntza-ekintza jarri ditugu abian, urtero BFAk eratzten dituen autoenplegurako laguntzen barruan. Batez ere, 40 urtetik gorako langabeek hartu dute parte, egoera

horri irtenbidea eman nahian autoenplegura jotzen baitute.

Autoenplegurako aholkularitzatik igaro den pertsona-kopurua: 61

Enpresa-kudeaketako ikastaro-kopurua: 2

Ikastaroetako partaide-kopurua: 19

Egindako enpresa-planak: 17

Abian jarritako enpresa-kopurua: 11

4.6.4 Bitartekotza

Enplegu-eskaintzak kudeatzen ditugu, batez ere inguruko enpresentzat. Era guztietako profilak eskatzen dituzte, gehienak industria-sektorekoak badira ere.

Kudeatutako eskaintza-kopurua: 67

Eskaintako lanpostu-kopurua: 79

Betetako lanpostu-kopurua: 10

4.6.5 Toki garapenari buruzko jardunaldiak

Toki-garapenari buruzko jardunaldien bidez, topagunea eta eztabaidagunea eskaini nahi zaie sustapen ekonomikoaren edo enpleguaren alde lan egin edo hori bultzatu nahi duten enpresei, instituzioei eta herritarrei. Haren bidez, elkargune bat eskaini nahi zaie gure sare ekonomiko eta soziala osatzen duten eragileei, beraien artean lankidetzak, sinergiak eta elkarrekiko harremanak sortzeko eta, horren ondorioz, gure ingurunean aberastasuna eta aurrerabidea sustatzeko.



Hartzaileak: enpresak, instituzioak, toki-erakundeak, prestakuntza-zentroak, herritarrak oro har, toki-garapenari buruzko jardunaldietan aztertuko diren gaietako batean interesa duten talde guztiak.

Toki-garapenari buruzko jardunaldiak aste bakar batean egiten dira, baina egun bakoitzean xedetaldetako jakin bati zuzendutako gai zehatz bat landuz. Parte hartzen duten taldeentzako intereseko gaiak proposatu dira.. Asteke egunetako batean, zehazki, ekintzaitzaren gaia

jorratzen da, eta egun hori aprobetxatzen da negozio-ideien lehiaketaren sariak banatzeko.

Toki-garapenari buruzko jardunaldi-kopurua: 1

Jardunaldietako partaide-kopurua: 150

Parte hartu duten enpresen kopurua: 5

Parte hartu duten prestakuntza-zentroen kopurua: 5

Parte hartu duten erakunde publikoen kopurua: 5

Toki-garapenari buruzko jardunaldiak 2016ko azaroan egin dira, ardatz nagusi baten inguruan: partaidetza, eraldaketaren motorra. Hitzaldiak:

«Erronkak eta esperientziak herritarren partaidetzaren inguruan». Hitzlaria: Igor Ahedo, Partaidetza eta komunitate-garapena unibertsitate-masterreko irakaslea.

«Ingurumen-iraunkortasuna eta enpresa. Energia-efizientzia eta enpresaren ingurumen-inpaktua». Hitzlariak: IK Ingenieria SLko Rubén Carnero, Protec Madera SLko Mikel Arando, Rebattery enpresako Benjamin Ballesteros, A&B Laboratorios de Biotecnología enpresako Kepa Izagirre eta IK Ingenieria SLko Francisco Campo. Ekonomia urdinaren kontzeptura hurbiltzeko tailerra. Hitzlaria: Innobide.



Nola heldu norberaren, erakundearen eta gizartearen eraldaketari, gorabidean datorren etorkizunetik. Esperientzia praktikoak. Hizlaria: Nice Lazpita, Norgarako kontsultorea. Alberto Lorenzo, Idesa Grupo XXIko CEOa. Txema Franco, Lantegi Batuak enpresako zuzendari nagusia. Rosalía Herrera Yuste, Ermuko Udaleko Plangintza Estrategiko eta Berrikuntza Saileko zuzendaria.



4.6.6 Merkataritza-arloarentzako aholkularitza eta laguntza

Merkataritza funtsezko elementua da udalerrri osasuntsu baten garapen sozioekonomikoan, jarduera ez ezik, enplegua ere sortzen du eta. Merkataritza-jardunak udalerrria suspertzen du eta, ildo horretan, enpresa-ekimen berriez gain, testuinguru aktibo eta erakargarria ere sustatzen du. Horiek horrela, baliabide-iturri garrantzitsua da udalerrriarentzat.

Tamaina ertain eta txikiko udalerrietan, merkataritza-sare irekian eta hurbiltasunean oinarritutako merkataritza-ereduak gertuko hirietako merkataritza- eta aisia-guneen lehiakortasun handiari egin behar dio aurre, tokiko ekosistema osoa arriskuan ipintzeko punturaino. Lehia-tentsio horren ondorioz, saltoki txikiek etengabe galtzen dituzte erabiltzaile potentzialak eta saltzeko gaitasuna; eta ondorioz, tokiko merkataritza-sistema hausteko arrisku larria dago.

Gaur egungo merkataritza-ereduan, lankidetzak, berrikuntza eta sorkuntza lehiakortasuna hobetzeko oinarritzko printzipioak dira; horregatik, udalerrien garapen sozioekonomikoan erabili beharreko elementutzat hartu behar ditugu.

Horiek horrela, ahaleginak eta baliabideak bateratu beharra dugu, tokiko merkataritza suspertuko duten sorkuntza-ekintza bideragarriak proposatzeko.

EUSTATen datuen arabera, gaur egun Ermuak 16.705 biztanle eta 207 establezimendu ditu: 12,075 saltoki 1.000 biztanleko; hau da, EAEko batez besteko merkataritza-dentsitatea (13,04) baino pixka bat txikiagoa. Datu horiek eta Udalak

eskuratutako beste batzuek dioskute merkataritza- eta zerbitzu-sektoreak negozio-aukera eta lanpostu-aukera handiak eskaintzen dizkiela hor sartu nahi duten ekintzaileei. Horregatik, garatu beharreko sektore estrategikotzat jo behar dugu.

HELBURUAK

1. Udalerrian eskaintza komertzial erakargarriagoa osatzea, Ermuko merkataritza areago suspertzeko.
2. Herrian bertan egindako kontsumoa bultzatzea eta «Ermua» marka sustatzea, bertatik mugitu gabe gure premia guztiak bete ditzakegulakoan.
3. Ermua Merkataritza Zentroa suspertzera eta sustatzera bideratutako ekintzak antolatu eta burutzea. Helburua: merkataritza-fluxu berriak erakartzeko zona-estrategiak sortzea.
4. Merkataritzaren zerbitzu osagarriak antolatu eta bultzatzea, ingurunean merkataritza-fluxuak erakartzen laguntzeko.
5. Hiri-merkataritza errentagarriaren eta kalitatekoaren lehiakortasuna eta eskaintza zabaltzea eta, horretarako, merkataritza-jarduna, establezimenduen kudeaketa eta langileen kalifikazioa hobetzea, Udalaren eta Ermuko Merkataritza eta Ostalarien Elkartearen artean landutako neurrien bidez.
6. Saltoki berriak eta zerbitzu osagarriak ezartzen laguntzea, herriko gastua beste herri batzuetara eta inguruko merkataritza-

zentroetara joan ez dadin eta herriko merkataritza susper dadin.

7. Batetik Udalak eta bestetik Ermuko Merkataritza eta Ostalarien Elkarteak proposatutako jardueren artean behar den koordinazioa eta kudeaketa eraginkorra ziurtatzea, bataren eta besteen ekintzek elkar indartzeko, horrek ekintza guztiei balio erantsi handia ekarriko die eta.

EKINTZAK

Ermuko Udala honako jarduketak egin zituen 2015ean, merkataritza- eta aisia-jarduerak eta haren lehiakortasuna hobetzeko eta herriko saltokiak eta ostalaritza suspertzeko.

Hirigintzarekin elkarlanean

Ermuko kaleen zati bat berriz urbanizatzea (Probaleku eta Izelaieta kaleen artean), oinezkoek eta ibilgailuek partekatuko dituzten eremu berriak sortzeko, PERCO ikerketaren emaitzak aintzat hartuta. Horri esker lortu dugu herriko irudia eta bertako hiri-altzariak hobetzea eta Ermua Merkataritza Zentro Irekia marka sustatzea.

Prestakuntza eta informazioa

Honako prestakuntza-ekintzak egin dira: sare sozialetarako hastapenak (SPRI), Sare sozialak (1. maila) eta web-orria sortzea (SPRI), Paketegintza sortzailea (Bizkaidenda), eta Personal Shopper (Bizkaidenda). Era berean, hilean behin bilerak egin dira Ermuko Ostalari eta Merkatarien Elkarteko

zuzendaritza-batzordearekin, eta banakako aholkularitza eman zaie hainbat saltoki eta tabernari.

Lehiakortasuna: berrikuntza, kalitatea, lankidetzak eta modernizazioa

Honako jarduketak egin dira: Fidelizazio-txartela eta VISA marka, IKT irtenbideak ezartzea, Web-orria garatzea, Laguntzak eta diru-laguntzak bilatzeko aholkuak, Hirigune 2015, Inplantalari proiektua eta Saltokitik enpresara (Euskaliit).

Merkataritza suspertzea

Honako ekimenak egin dira abian urtean, besteak beste: «Erakusketa eta Jostaketa» stock-azoka; Merkataritza bizitza da; Gau irekia, ekitaldi eta emanaldiekin; Herriko jaietako partaidetza; «Eskolarako buelta eta jostaketa» stock-azoka; Bezzeroaren aste ikaragarria; Gabonetako erakusleihen lehiaketa; Kanpai-hotsen aurrerapena; «Disneyren magia» txikientzako zaldimaldikoa; Jardunaldi gastronomikoetako partaidetza (pintxo-lehiaketa, kazolatxo-lehiaketa, scooter bilkura gastronomikoa, zonakako pintxo-potea); Txikiparkea; eta «Bono-denda».

4.6.7 IZARRA FUNDAZIOA

1.1 Ekintzaitza

1. helburua.- Kontzeptu horren pean, ikuspegi desberdinetatik ekintzailtzan eragin positiboa izango duten jarduerak burutu nahi dira. Hain zuzen, ekintzailtzaren esparru eta fase guztiak bultzatzea da helburua: azpiegiturak, espazioak eta ekintzailtza-prozesua (ideia sortzea, lantzea, enpresa sortzea eta sendotzea).

Idea sortzen denetik enpresa sendotzen den arte, ekintzailtza faktore askoren menpe egoten da. Adibidez, non mugitzen zaren, norekin ibiltzen zaren, bizitzaren beharrianak, zure prestakuntza-maila, finantza-baliabideak... horiek guztiak hartu behar dira kontuan ekintzailearen jardunean. Gure asmoa: kalifikatuta dauden pertsonak leku jakin batean elkarrekin harremanetan jartzea, baliabide jakin batzuk tarteko, orotariko ideiak sortu, garatu eta sendotu ahal izateko.

2.- Helburu bereziak.- Enpresak sortu eta garatzeko testuinguru egokia lortzeko, esparru batean baino gehiagotan eragin behar da. Hona gure helburu bereziak:

- 1 Ekintzaile potentzialen harrobia bultzatzea Izarra Centreren esparruan.
- 2 Proiektuak hasiera-hasieratik bultzatzea.
- 3 Enpresa teknologiko berriak sortzen laguntzea.
- 4 Sortutako enpresak sendotzea.

3. Egin beharreko ekintzak:

SENTSIBILIZAZIOA

1. Tecnalia ekintzaile-kluba

2. Gure inguruko industria-testuingurura bideratutako teknologiarri buruzko prestakuntza gazteentzat.
3. Enpresa-espazioan liburutegi-ikasgela suspertzea.

SORKUNTZA

4. Plataformak, aplikazioak eta prototipoak garatu eta bultzatzea.
5. Enpresa berrien kapital sozialean parte hartzea.
6. Urtebetean autonomoen kuota ordaintzea.

SENDOTZEA

7. Ekintzailtzari eta proiektu berrien garapenari lotutako prestakuntza.
8. Enpresa sortu berriei bezeroak erakartzen laguntzea.

a) Tecnalia ekintzaile-kluba:

1. Zertan datza ekintza hori: ekintzak Tecnaliarekiko lankidetzaren eredu ezartzea du helburu, Tecnaliak teknologia-ekintzailtzaren alorrean burutzen dituen jarduerak Izarra Centren biltzeko asmoarekin.

2. Xede-taldea: proiektu propioak dituzten ekintzaileak eta ekintzailetzaren munduarekiko interesa duten pertsonak.

3. Datak: 2016ko maiatzetik abendura.

4. Lekua: Izarra Centre.

5. Egindako jarduerak: hona lan-ildo horretako ekintza nagusiak:

- 1 Hitzarmena sinatzea Tecnia Venturesekin.
- 2 Speed Dating bat programatzea Tecniaarekin eta Dos Pitch&Pintxorekin.
- 3 Programatutako jarduerak antolatzea.

6. Eraitza-adierazleak:

- 1 Partaide-kopurua: 60
- 2 Enpresa-kopurua: 15

b) Enpresa-espazioan liburutegi-ikasgela suspertzea

1. Zertan datza ekintza hori: ekintza horren bidez, espazioak eta tresnak prestatu dira, udal-liburutegiarekin koordinatu da, ikasgelako zerbitzuak abiarazi eta ireki dira, eta erabiltzaileen jarraipena egin eta laguntza eman zaie.

2. Xede-taldea: lizentzietako, ingeniarietzako, goimailako graduetako eta abarretako azken urteko ikasleak.

3. Datak: 2016/06/01 – 2016/12/31

4. Lekua: Izarra Centre

5. Egindako jarduerak:

- 1 Espazioak eta tresnak prestatzea.
- 2 Udal-liburutegiarekin koordinatzea.
- 3 Ikasgelako zerbitzuak abiarazi eta irekitzea.
- 4 Prestakuntza (ingelesa, adobe, autocad...), hitzaldiak, (ekonomia urdina, nola egin elkarrizketak...) eta motibazio-ekintzak (emakumeen ekintzaileta...) ematea.

6. Eraitza-adierazleak:

- 1 370 erabiltzailek eman dute izena.
- 2 20 erabiltzaile etengabe, eta batzuetan 80 ere bai batera.
- 3 30 tutoretza-ordu baino gehiago.

c) Plataformak, aplikazioak eta prototipoak garatu eta bultzatzea.

1. Zertan datza ekintza hori: jarduera horren bidez, teknologia-garapenerako ideiak dituzten pertsonak bildu eta bultzatu nahi izan dira. Teknologiaren bat garatu nahi zuten proiektu-sustatzaileak bertaratzeko deia egitea zen asmoa.

2. Xede-taldea: izaera teknologiko nabarmena duten enpresa-proiektuak prestatzen diharduten baina ideia abiarazteko formula aurkitu ezinean dauden pertsona fisiko eta juridikoak.

3. Datak: 2016/03/01 – 2016/12/31

4. Lekua: Izarra Centre

5. Egindako jarduerak:

- 1 Oinarriak prestatu eta argitaratzea.

- 2 Proiektuak jaso eta onartzea.
- 3 Onartuta proiektuak monitorizatzea.
- 4 Prototipoak garatzea beste baliabide batzuk eskaintzea (harremanak, tresnak eta abar).

6. Emaitza-adierazleak:

- 1 6 proiektu aurkeztu dira Serious Campean.
- 2 20 partaide.
- 3 1 garapen.

d) Enpresa berrien kapital sozialean parte hartzea.

1. Zertan datza ekintza hori: teknologia-proiektuak erakartzea da jardueraren ardatza; hartara, horretarako behar diren zabalkunde- eta informazio-bideak ezartzen dira.

2. Xede-taldea: Izaera teknologikoa edo euren merkatuan izaera berritzailea (berrikuntzak produktuetan, produktu berriak...) duten enpresa-proiektuak sustatzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Datak: 2016/03/01 – 2016/12/31

4. Lekua: Izarra Centre

5. Egindako jarduerak:

- 1 Enpresak finantzatzeko prozesu publikoa ipintzea abian.
- 2 Proposamenak jasotzea (etengabeko prozesua).
- 3 Enpresaren kapital soziala «monetizatzea» (beraren kapital soziala definitzea).

- 4 Patronatuak ebaluzioa egin eta erabakiak hartzea.

6. Emaitza-adierazleak:

- 1 Bi eskaera jaso dira.
- 2 Proiektu bat birfinantzatu da (Textia).

e) Urtebetean autonomoen kuota ordaintzea.

1. Zertan datza ekintza hori: Izarra Centre garatzeko moduko proiektuak erakartzea, ebaluatzea eta proiektuon sustatzaileei aholkuak eskaintzea da asmoa, autonomoentzako laguntzak helburu egokia izango duela bermatzeko.

2. Xede-taldea: azken bost urteotan autonomoetan alta emanda egon ez diren ekintzaileak.

3. Datak: 2016/03/01 – 2016/12/31

4. Lekua: Izarra Centre

5. Egindako jarduerak:

- 1 Lehiaketaren oinarriak zehaztea.
- 2 Oinarriak argitaratzea.
- 3 Proposamenak jasotzea.
- 4 Azterketa egin eta diru-laguntzak banatzea.

6. Emaitza-adierazleak:

- 5 Jasotako eskaerak: 2
- 6 Finantzatutako pertsonak: 2

f) Ekintzailetzari eta proiektu berrien garapenari lotutako prestakuntza.

1. Zertan datza ekintza hori: jarduera horren bidez, enpresa-proiektua kudeatzen duten pertsonak profesionalki gaitu nahi dira. Horregatik, prestakuntzaren bidez estaltzen dira kudeaketaren esparruan antzemandako gabeziak.

2. Xede-taldea: ekintzailertzan interesa duten edo enpresa sortu duten pertsonak.

3. Datak: 2016/01/02 – 2016/12/31

4. Lekua: Izarra Centre eta beste

5. Egindako jarduerak:

- 1 Programazioa zehaztea.
- 2 Zerbitzuak kontratatzea.
- 3 Zabalkundea eman eta pertsonak erakartzea.
- 4 Prestakuntza ematea.
- 5 Prestakuntza ebaluatzea.

6. Eraitza-adierazleak:

- 1 5 prestakuntza-ekintza.
- 2 40 erabiltzaile prestakuntzan eta hitzaldietan.

- o **Enpresa sortu berriei bezeroak erakartzen laguntzea.**

1. Zertan datza ekintza hori: ekintzaren bidez, enpresa sortu berrien salmentak bultzatu nahi dira; horretarako, enpresaren berri emateko eta produktua merkaturatzeko ekintzen ehuneko bat ordaintzen da.

2. Xede-taldea: Izarra Centre mintegian dauden enpresak.

3. Datak: 2016/01/02 – 2016/12/31

4. Lekua: Izarra Centre

5. Egindako jarduerak:

- 1 Oinarri arautzaileak sortzea.
- 2 Mintegiko enpresei horren berri ematea.
- 3 Eskerak jaso eta ebaluatzea.
- 4 Eskerak onartzea.
- 5 Justifikazio-dokumentazioa jasotzea.

6. Eraitza-adierazleak:

- 1 3 enpresak hartu dute parte.
- 2 2 zabalkunde-ekintza finantzatu dira.

1.2 Industriaren lehiakortasuna

1. Helburua.- Gaur egungo industriak iraultza txiki bat bizi du produkzio-prozesuetan, teknologia berriak eta fabrikazio-era berriak direla eta. 4.0 industria errealitate bihurtzen ari den honetan, ezinezkoa da iragartzea zer ondorio izango duen enpresen enpleguan eta lehiakortasunean. Dena dela, agerikoa da egokitzapen teknologikoko prozesu hori errazagoa dela baliabide gehiago dituzten enpresa handientzat, gure industria-ehunean dagoen enpresa-ereduarentzat baino. Testuinguru horretan, 4.0 industriaren onura horiek guztiak arazo bihurtzen dira mikroeteetan oinarritutako euskal industria-sarearentzat, oso tradizionala baita eta oso teknologia gutxi erabiltzen baitu produkzio-prozesuan, produkzio-makinez aparte.

Horrekin batera, lankidetzata tasa gutxiko produkzio-ehuna mantentzen dugu, hein batean hezkuntza-sistematik urrun dagoena. Hartara, negozio-aukera bateratuak galdu egiten ditugu eta industrian bertan kalifikatutako belaunaldi-aldaketa mugatu egiten da, ikasleak ez baitira industria-mundura bideratzen.

Horrenbestez, lan-plangintza horren bidez gure industria-ehunaren epe luzerako lehiakortasuna hobetu eta bermatu egin nahi da.

2. Helburu bereziak: helburu orokor hori lortzeko, honako helburu berezi hauek planteatzen ditugu:

- 1 Enpresen arteko lankidetzata bultzatzea, mikroeteen artean estrategia bateratuak sortzeko.
- 2 Mikroeteen egokitzapen teknologikoa bultzatzea.

3 Gure gazteek industria hobeto ezagut dezaten laguntzea.

3. Egin beharreko ekintzak:

- a) Bonu teknologikoak
- b) Hitzaldi estrategikoak
- c) Izarra ikasgela eta enpresentzako prestakuntza

a) Bonu teknologikoak

1. Jardueraren deskribapena: ekintza horren bidez, mikroenpresek 4.0 industria esaten zaion horretara egokitzeko behar duten teknologia (3D teknologia, berariazko softwarea, datuak biltzeko sistemak...) ezartzeko kostuaren ehuneko bat finantzatu nahi da.

2. Xede-taldea: Ermuko Udalaren edo Izarra Fundazioaren laguntza jaso edo jasotzen duten industria-enpresak eta ekintzaileak.

3. Datak: 2016/04/01 – 2016/12/31

4. Lekua: Izarra Centre

5. Egindako jarduerak: honako ataza hauek egin dira:

- 1 Lehiaketa-oinarriak prestatzea.
- 2 Eskerak egiteko epea argitaratu eta irekitzea.
- 3 Proposamenak onartzea.
- 4 Ebaluazioa eta jarraipena egitea.

6. Eraitza-adierazleak:

- 1 Enpresek lau eskaera egin dituzte.
- 2 Bi enpresak jaso dute laguntza.
- 3 18.000 €-ko inbertsioa egin da 4.0 industrian.

b) Hitzaldi estrategikoak

1. Zertan datza ekintza hori: enpresentzako lan-plana antolatu da, beraien lehiakortasuna hobetze aldera.

2. Xede-taldea: Ermuko, Debabarrenako eta Durangaldeko ETEak, batez ere mikroeteak.

3. Datak: 2016/04/01 – 2016/12/31

4. Lekua: Izarra Centre

5. Egindako jarduerak:

- 1 Enpresara bideratutako programa prestatzea.
- 2 Xede-taldeari horren berri ematea.
- 3 Programa abian jartzea.
- 4 Ebaluazioa egitea.

6. Eraitza-adierazleak:

- 1 15 enpresak hartu dute parte jardunaldietan.
- 2 46 lagunek hartu dute parte jardunaldietan.
- 3 Lankidetzaren proiektu bat burutu da.

c) Izarra ikasgela eta enpresentzako prestakuntza

1. Zertan datza ekintza hori: jarduera horren bidez, ekintzaile gazteentzako lan-plan bat egituratzen da: alde batetik prestakuntza espezializatua jasotzen du

eta, bestetik, proiektua bera bultzatzeko harreman-egitura sortzeko aukera du.

2. Xede-taldea: ekintzaile-proiektua duten gazte kalifikatuak, berriazko prestakuntza jaso nahi dutenak.

3. Datak: 2016/03/01 – 2016/12/31

4. Lekua: Izarra Centre

5. Egindako jarduerak:

- 1 Proiektuak identifikatzea.
- 2 Jarduera-programa zehaztea.
- 3 Ikasleak hautatzea. Ikasleek fundazioaren beka jaso zuten programan izan ziren bitartean.
- 4 Programa gauzatu, ebaluatu eta amaitzea. Fase horretan, enpresa berrien sorrera sustatu zen.

6. Eraitza-adierazleak:

- 1 Hiru lizentziadunek hartu zuten parte.
- 2 Bi proiektu daude sortze-bidean.

1.3 Merkataritza-lehiakortasuna

Ostalaritza- eta merkataritza-sektorea oso une kritikoa dago, gizartean izan diren aldaketen aurrean; izan ere, ezinbestean egokitu beharra du, kontsumo-aldaketen ondorioz eta sektorean berrikuntzak ezin txertatzearen ondorioz. Establezimendu tradizional gehienak berrikuntzatik eta teknologiatik kanpo dauden bitartean, enpresa-eredu berriak sortzen ari dira, aplikazioetan, publizitate bideratuan, ordainbide erraztuetan eta

abarretan oinarrituta. Eredu berri horrek inpaktu zuzena du betiko merkataritzan.

Horiek horrela, tokiko merkataritza eta ostalaritza txikiek suspertu beharra dute, ezinbestean: alde batetik, prestakuntzari, berrikuntzari eta teknologiarik lotutako ekintzak eta, beste alde batetik, teknologia berrientzako bultzada.

a) **Merkataritza-berrikuntzako poloa (prestakuntza, teknologia, hitzaldiak...)**

1. Zertan datza ekintza hori: ekintzak prestakuntza eta teknologia bultzatzeko espazioak sortu nahi ditu, merkatarik txikien lehiakortasuna hobetze aldera.

2. Xede-taldea: merkataritza- eta ostalaritza-sektoreak eta esparru horretako ekintzaileak eta teknologoak.

3. Datak: 2016/04/01 – 2016/12/31

4. Lekua: Ermua

5. Egindako jarduerak: Ekintzak honako elementu hauek hartzen ditu:

- o Epe laburrerako estrategia planifikatu eta prestatzea (zabalkundea, diagnostikoa...).
- o Saltokientzako onlineko prestakuntza ematea.
- o Arlo guztietan ezartzeko teknologia berriak garatzeko lehiaketa (TICKCLOUD).

6. Emaitza-adierazleak:

- 1 20 bisita establezimenduetara.
- 2 Tiketak hodeian sortzeko teknologia garatuta da.
- 3 Bi prestakuntza-ikastaro online.

1.4 **Gizarte-lehiakortasuna**

Ermuko Udalak zuzendutako proiektua, ApoyoDravet (AD) elkartearekin lankidetzan, Ermua erabiltzailearengan oinarritutako gizarte- eta teknologia-berrikuntzako erreferentzia izan dadin. Teknologian oinarritutako lankidetzak-berrikuntza ireki hori Social Ermua CityLab izeneko ikerketa- eta garapen-ekosistematzat egituratzen da, herritarra izanik beti ardatz nagusia.

Social Ermua City Lab eraikitzeko, beharrezkoak izango dira Ermuko herritarren partaidetza aktiboa, Ermuko Udalaren giza baliabideen eta baliabide materialen ekarpena, eta udalerriko erakunde eta enpresen arteko lankidetzak. Etengabe aldatzen den benetako ingurunean probatu eta sortuko dira irtenbideak, eta arazo konplexuetara bideratu. Hasieran gizartean bazteritutako bi talderi erreparatuko zaio nagusiki: mendetasuna duten pertsonen eta gaixotasun arraroak jota daudenen. Gainera, zahartzearen gizarte-arazoari ere helduko zaio.

a) **Ermua City Lab**

1. Zertan datza ekintza hori: jarduera horrek bi lan-ildo ditu: batetik, datuak kudeatzeko softwarea (big data) garatu nahi da, proiektuak testatzeko asmoz; eta, beste aldetik, gizarte-izaerako proiektu

teknologikoak sortu eta testatzeko espazio espezializatua sortu nahi da.

2. Xede-taldea: enpresak, ekintzaileak eta herritarrak oro har.

3. Ekintzaren deskribapena: ekintzak honako elementu hauek hartzen ditu:

- City Lab sortzea. City Lab egituratu eta sistematizatzea.
- Hori suspertzea.
- Ezagutza erakarri eta kudeatzea. Tresnen sorkuntza teknologikoa.
- Proiektu operatiboak. Ermua Serious Camp abiaraztea.

4. Datak: 2016/04/01 – 2016/12/31

5. Lekua: Ermua

6. Egindako jarduerak:

- 1 Udalaren informatika-zerbitzuarekin biltzea.
- 2 Datuak kudeatzeko softwarea garatzea.
- 3 Ermua Serious Camp antolatzea.

7. Emaitza-adierazleak:

- 1 Bi proiektu.
- 2 80 partaide.

4.6.8 PROMOSA

Udalaren garapen ekonomikoa sustatzea da PROMOSA udal-sozietatearen helburua. Horretarako, herriaren hobekuntza ekonomikoa

eta soziala lortzeko sustapen ekonomikoak, hirigintzakoak, teknologikoak eta abar aztertu, diseinatu eta burutzen ditu.

Ermuko Udalak, PROMOSA sozietate publikoaren bidez, enpresentzako espazioak sustatzen eta alokatzen jarraitzen du Izarra Centren. Gaur egun 3.275 metro koadro daude okupatuta, eraikinaren % 62,58. Gainera, eraikinean dauden 168 aparkalekueetatik 68 ere alokatuta daude.

Ekintzailatza- eta berrikuntza-kultura sustatzeko behar diren azpiegiturak eskaintzearen estrategiarekin bat datorren zerbitzu-eredutzat finkatu da Izarra Centre. Estrategia horren bidez, Ermua enpresa berrientzat erakargarri bihurtzeaz gain, bertako produkzio-ehuna eraldatu eta modernizatu ere egin nahi da.

Beste lan-ildo batean, ekitaldiak eta jardunaldiak egiteko alokatzen dira espazio erkideak; besteak beste, eraikinean dauden enpresek eta Ermuko industria-enpresa batzuek bideokonferentziak egiteko erabiltzen dituzte espazio horietako batzuk.

2016an, honako enpresa hauek aukeratu dute Izarra Centre: Aptica, BC Sistemas, Blum-Novotest, Colorfoul, Espacio Naturista, Eysis, Enolimp, Galea Electric, Grupo Idesa, Innocut, Jardunbide, Jose Manuel López Abogado, Lorea Consulting, Manahmana, Margube, Maswer, Mesco Electrónica, Metincer, Noa Ingeniería, Protech, Recursos para el éxito, Soluciones Mediambientales, Todolan, Trilogic Telecom, Zeuxa, Zuzenbide Kontuak.

2016an, gainera, ermuarrek nahiz herriko enpresek IKTak gehiago erabiltzeko ildo estrategikoari eutsi dio Promosak. Zuntza hedatuta, indartu egin da banda zabalak eskaintzen duen kalitatean eta gaitasunean oinarritutako eskaintza. Horri esker, operadore batzuek, hala nola Adamok, Esanlinek, Nubipek eta Sarenetek telekomunikazio-zerbitzuak merkaturatzen dituzte gure zuntz optikoaren udal-sare neutroa prezio lehiakorrean erabiliz. 892 etxek jarri dute konfiantza gure udal-zuntzak eskaintzen dituen aukeretan.

Olañeta izan zen Promosak 2014an abian jarritako operazioetako bat. Haren bidez, 8 etxebizitza libre eta 13 BOE sustatu zituen. Horretarako, babes ofizialeko etxebizitzak

esleitzeko kooperatiba bat eratu zen. 2015aren amaieran amaitu zen sustapena eta 2016an bi etxebizitza libre eta bi garaje saldu ziren.

4.7 Zeharkako proiektuak

Zeharkako proiektuak gure jarduera osoan daude txertatuta. Halakoak dira, adibidez, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari laguntzeko jarduna, garapen iraunkorraren aldekoa edo gure zerbitzuen kalitatea.

4.7.1 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

Enplegua lortzeko aukeran eta lortutako enpleguaren kalitatean, gizonen eta emakumeen arteko erabateko berdintasunaren alde jarduten dugu. Ermuko Udalaren Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. ardatzetan esku hartzen dugu: Tokiko Garapen Arloaren programa eta jarduketetan genero-ikuspegia txertatzen dugu; emakumeen ahalduntzea indartzen dugu; lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko eta

ardurakidetasuna sustatzeko lan egiten dugu; eta emakumeen aurkako indarkeria borrokatzeko ekintzak babesten ditugu.

4.7.2 Kalitatea

Prozedurak hobetzeko lan egiten dugu, zerbitzu bizkorragoak, eraginkorragoak eta efizienteagoak izan daitezen. Ildo beretik, hobekuntza-taldeekin eta proiektu estrategikoak garatzeko taldeekin lankidetzan jarraitzen dugu.

2011. urteaz geroztik, sistematikoki erregistratzen dugu erabiltzaileek jasotako zerbitzuez egiten duten ebaluazioa. Honako datu hauek nabarmen ditzakegu:

- Faktore orokorrean eman dieten batez besteko puntuazioa (1-10 eskalan):



- Instalazioak: 7,77
- Zerbitzuen baliagarritasuna: 8,70
- Arreta pertsonala: 8,99
- Antolaketa: 8,64
- BALORAZIO OROKORRA: 8,76